

# MAISU BILLA

---

Joshe Elizondo jaunari. Arki dan lekuan arki bedi.

LAGUN ZAR JOSE:

**A**SPALDITIK zeukat gogua irekin itz bi egitekua gure izkuntzaren gayetan ondo mintzaten naizen edo ez jakiteko, zergatik euskara-ganako arreta aundikua naizelarik, iruditzen zaidan nigan arki ditudan gayak ez dirala gure Ama Euskarak eskatzen dituben diñakuak.

Egiya esango diat, eta erantzun bear dirak adiskide on bati oi zayon bezela, zer ekach arkitzen ditukan nere luma muturrak egiten dituben lan urri ta ezerezkoetan.

Ondo, chit ondo dakik nere berri edo nere gayak zenbaterañokuak diran, eta igan nola arkitzen detan maisu bat, ez diat nai joan urre bila, buztia besterik ematen ez duben lurrera.

Ik esango dek agiyan (eta au nere iritziya dek): ¿nik zer esango ziat oni, dakiyen diña gogo aundiz eta patrikarako ezeren mesederik gabe egiten badu? Mutu geldituko baintzake nere jakin nai ta bearrezkoai erantzun gabe, auzartuko nindukek esatera i ere mesedegille chikiya aizela gure euskerarentzat, bañan bazekiat ire borondatian berri aspaldi ontan, eta ukian geldituko ez aizela ere bai.

Esaidak, Elizondo: ¿ondo esana alziok egun batez gizon, jakintsuen mallako batek esan zubena elkarizketa batian, eta dana onela?: *Asko amalaudunak izan dira*. Nik uste diat obetoago esana izango litzakiela: *amalaudun asko izan dira*; beintzat nere sorterriyan ala esango litekek, baita ere, Lezo-n, Oyartzun-en, Pasayan, Alza-n, Donostiya-n, Ernani-n eta Urnieta-n.

Orañ balitekek obetoago esana izatia Burgos inguruan, *asko ama-laudunak izan dira*, bada nik nola ez dakitan ango berri, ez nitekek sartu aurreragi gai neurketan, eta lan au uzten diat ire gaiñ; eta betarik arkitzen badek iregan, esan bear dirak gañera ondo esana daguen mol-dizkiratutako liburu batian irakurri detan beste au ere: *ongi euskeraz itzegingo du*; nere iritzirako esan bear dana dek: *euskeraz ongi itzegingo du*.

Nik etzekiat zer gertatzen zaidan, bañan dakitana dek, geruago ta motelago arkitzen naizela euskeraz mintzatzeko, bada maisutzat ezagutzen ditugun oriyek ere *beren euskera berritzako seta orrekin*, Marzelino Soroa zanak bizi balitz esango lukien bezela, naspillaz bete, bete egin ziratek burua; eta ik gai ontan arrazoirik ematen ez badirak, ziñetan esaten diat, ez naizela geyago izkribatzen jarriko, zergatik joan nai ez detan berriro, urre billa joan bearrian buztiñetara.

Aizak, eta Charautzen ¿nola ibilli zerate? Bazekiat beste *Charautar* bat chit ondo ibilli dala; iñolaz ere onen *Chara* betiago arkitzen zalako izango dek noski; eskuitako bidetik ibilli izan baintzan, urrizti betia arkituko ukan.

Barkatuakiak, bañan beste gauza bat ere galdetu bear diat; ¿ondo egiña dagola alderitzok bertso bat gis ontan?:

Emen nago zugatik  
emazte ta guzi  
egi bat esan nairik  
aurrez aurre zuri.

¿Dungarriak dirala uste alde, guzi ta zuri? Nere iritzirako ez; len ere joan bearrean arkitu izandu nak Kastañeda jaun sendakiñagana ta orlako eresi asko irakurtzen badizkiat, uste diat berriro joan bearoko de-tala belarriko chuluak garbitzera.

¿Ez alderitzok ondoren datorren eresia obetoago esana? Ire iritzi-yaren zai geldituko nak, bai, ta aldekan lasterrena eman bear dirak erantzuera, geldi nadiñ aspaldi opa detan lasaitasunakin:

Emen nago Zugatik  
ta eziñ det utzi,  
arrazoi oni zintzo  
gero ere eutzi.

Uste diat beste ori baño askotzaz obeñiagua dala bigarren au. ¿Zer deritzok, Elizondo?

Nik etzekiat ezerchore ondo egiten, bañan alaz guztiaz ere, jakintsuen arrimuan zerbait egiten sayatzen nak, eta gogoz ta borondate aundiz alare.

¿*Qué debo por la consulta, Elizondo?* Ez gero geyegerik esan; merke nai diat, merke; bada nik emango diatenakin, ez dek patrikarik beteko urrez, eta ala betetzia nai badek, Charautzeko urrizti eskuitakuan bete bear ko dituk ire soñeko patrikarak urrez, bada bestetara joaten baaiz, buztinez beteko dituk. *Asko amalaudunak izan dira*, lagun zarra.

Au esan zuben maisuakiñ euskera aurreratu gentzakek zerbait, Elizondo; eta aspergarri banago errenkada geyegirekiñ, ire barkaziyuan zai egongo dek zer nai gauza agindu besterik ez diyokan ire lagun zar,

JUAN IGNACIO URANGA

Donostiyan 1912-ko Urria-ren 29-an.

## BUKONDOREA

Norbaitek esan zirak, eta agiyan i ere jakiñan ganian egongo aiz noski biñipiñ ta, ezeren eragozpenik ezpadek, esan bear dirak non arki diran *gordiñik jan litezkien soruak*; nik ikusi izan dizkiat gizon bi soru maniatua jan eziñik sagardotegi batian, bañan zapata soruak; eta ¿*gordiñik?*, ezta sayatu ere ezitukan egingo ayek. Ago, ago; oraiñ bururatzzen zaidak ori izkribatu dubenak zer esan naiko duben. Alegiya, soruetako belarra gordiñik jan litekiela; belar zale bear dik izan batek jaki ori gordiñik jateko, bada neretzat latzegiya dek, eta ez diat uste sayatuko naizenik jaten.

Abereak bai, gordiñik jaten ditek, bañan nik ez detan bezelako abozapari gogorra dutelako; bañan, ¿*sorua gordiñik jan? Ez nak ari choriño. Alez panuartzen, Elizondo. Amak esan da ezta balio.*

